

## Martxoaren 30ean disolbatu egingo da Nafarroako Legebiltzarra /4



## Jauregi: «EAJ eta EEren programa kontserbatzailea eta nazionalista da» /4



## Udaletxeetan autobideaz mozioak aurkeztea erabaki dute HBko alkateek /5


EUSKALDUNON Egunkaria

Ostirala, 1991ko urtarrilak 18 / II. urtea / 36. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera


KIROLA

## Bost Nazioen hasiera kolokan

Bost Nazioen rugby txapelketa jokatuko denentz zalantzan dago. Bihar hastekoa zen, baina International Boardek Golkoan gerra hasiz gero bertan behera utziko dutela adierazi zuen orain egun batzuk. / 2

# Hasi da tanke borroka

## Gerrak luze iraun dezakeela esan du Pentagonoko buruak

Atzo goizaldeko aire erasoaren ondoren, lurrekoari ekin zioten indar aliatuek. Tanke borroka bortitzak ari ziren gertatzen Arabia Saudia eta Kuwaiten arteko mugan, Jordaniako irratiek esan zutenez. BBCren arabera, Kuwaiterantz zihoazen atzo iluntzean aliatuen tankeak. Aire erasoa ez zuten eten hala ere Estatu Batuen agindupeko indarrek, eta Iraken erabateko errendizioa eskatu zuten erasoa geldierazteko.

Nazio Batuen ultimatumaren epea bete eta 18 ordutara erasotu zuten indar aliatuek, Estatu Batuen gidaritzapean. Aire eraso masibo eta etengabea jasaten ari da Irak atzo goizaldeko 02.30etatik (00.30 Euskal Herrian). Pentagonoaren arabera, bonbardaketen helburuen % 80 jo zituzten gerra hegazkin aliatuek, baina borrokak «denbora luze samarean» iraun dezakeela gogorarazi zuen atzo arratsaldez Richard Cheney EEBBetako Defentsa idazkariak.

Bonbardaketek Iraken sortu dituzten biktimetaz ez da ezer jakinarazi. Saddam Hussein, behintzat, bizirik dago eta Bagdadeko kaleetan agertu zen atzo telebistan. Indar aliatuek hiru hegazkin galdu dituztela konfirmatu da, iparramerikar bat, britainiar bat eta kuwaitiar bat. Aliatuen 44 abioi eraitsi zituztela adierazi zuten, aldiz, Iraken iturri militarrek.

Oraingoz, aire erasoa ez da gelditukο. Estatu Batuek Iraken baldintzarik gabeko errendizioa esijitu zuten atzo, eta hori gerta dadin ez dute suetenik eskainiko. Erabat utzi behar diote borrokari irakiarrek, gerraren makina gelditzeko. / 9-19

✓ Baldintzarik gabeko errendizioa exijitu dute Estatu Batuek.

Gerra hegazkinek bere helburuen % 80 jo zu- tela dio Pentagonoak.



Soldadu Britainiarrak Arabiako basamortuan, aireko erasoaren emaitzak ospatzen. AP

## GEORGE BUSH

■ «Gerra ez da luzea izango, ezta beste Viet Nam bat ere. Ez dugu hutsegingo».

■ «Orain, espero dut, herri irakiarrak bere diktadorea kokmentzituko duela armak utz ditzan».

## SADAM HUSSEIN

■ «Irabazi egingo dugu, Fahd, saudi herria zure aurka jarriko bait da gurekin».

■ «Zuek hegazkin eta tanke gehiago dauzkazue, baina nazio baten indarra bere fedean dago».

## Ezusteko eragina burtsan eta petrolioan

## Euskal Herrian gerraren kontra

Milaka lagun irten zen kalera gerra hasia zela jakin bezain laster. Eskoletan batzarrak egin ziren goiz erdian eta eguerdi partean protesta ekintza jendetsuak izan ziren. Iluntzean manifestazioak egin ziren hiriburu eta hainbat herritan. Gaur eta ondoko egunetarako, gerraren kontrako hainbat protesta ekintzetarako deiak luzatu dituzte Gerraren Kontrako Euskal Batzordeak eta Bakearen Aldeko Euskal Iniziatibak. Irakaskuntza ertainean eta unibertsitateetan greba deialdia egin da gaurko.


BESTERIK

POLITIKA

«Kalekoa delako» erabili omen zuten obispoek 'preso politiko' hitza / 5

GIZARTEA

Nafarroako Herri Izendegia aurkeztu du Euskaltzaindiak / 7

KIROLA

Gaur bilduko da Donostian Nazioarteko Atletismo Federazioaren kontseilua / 21

KULTURA

Sambhu eta Kili Kolo tldeek antzezlan berri bana / 26